

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**703/2024 Foru Agindua, abenduaren 30ekoa, onesten duena hutsen zuzenketa, honako foru agindu honena: 695/2024 Foru Agindua, abenduaren 23koa, karrerako funtzionario izendatzeko dena Arabako Foru Aldundiaren eskala hauetan karrerako funtzionario izateko deialdian: administrazio berezia, azpieskala teknikoa, erdi mailako teknikaria, basogintzako ingeniari-tza teknikoa, A taldea, A2 azpitaldea (2022ko EPE)**

Abenduaren 23ko 695/2024 Foru Aginduaren bidez karrerako funtzionario izendatu ziren Arabako Foru Aldundiaren eskala hauetan karrerako funtzionario izateko deialdian: administrazio berezia, azpieskala teknikoa, erdi mailako teknikaria, basogintzako ingeniari-tza teknikoa, A taldea, A2 azpitaldea, iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespeneko prozesuari dagokiona (2022ko EPE).

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua honako hau ezartzen du:

“109. artikulua. Egintzak errebokatzea eta akatsak zuzentzea (...).

2. Herri-administrazioek, beren kabuz edo interesdunek eskaturik, edozein unetan zuzendu ditzakete beren egintzetako errakuntza materialak, egitekoak edo aritmetikoak.”

695/2024 Foru Aginduaren xedapen-zatiaren lehen puntuan akats material bat antzeman da, pertsona batzuen destinoak esleitzeari buruzkoa, eta, beraz, zuzendu egin behar da.

Diputatu Nagusiaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta ekainaren 1eko 23/2021 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala. Horrez gain, ekainaren 30eko 150/2023 Dekretuak Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu zituen 2023-2027 legegintzaldirako. Horrela, bada, dekretu horietan guztietan xedatutakoarekin bat etorritik, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. administrazio bereziko eskalan, azpieskala teknikoan, erdi mailako teknikariaren klasean, basogintzako ingeniari-tza teknikoan, A taldean, A2 azpitaldean karrerako funtzionario izendatzeari buruzko abenduaren 23ko 695/2024 Foru Aginduaren xedapen-zatiko lehen puntua zuzentzea, Arabako Foru Aldundiaren iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespeneko prozesuari dagokiona (2022ko EPE).

Honela dio:

Lehenengoa. Arabako Foru Aldundiko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu bereziari (2022ko EPE) dagokion administrazio bereziko eskalan, azpieskala teknikoan, erdi mailako teknikariaren klasean, basogintzako ingeniari-tza teknikoan, A taldean, A2 azpital-

dean sartzeko deialdiko karrerako funtzionario izendatzea honako lanpostu hauei atxikita gaintu duten hautagaiak:

IZENA	LANPUSTUA	KODEA
Miguel Corral Legazpia	Mendi Zerbitzuko Teknikaria	1200.001
Gorka Lago Parra	Mendi Zerbitzuko Teknikaria	1201.010
Ekhi Mandiola Izaguirre	Biodibertsitateko Teknikaria	1201.002
Xabier Albizu Zabala	Biodibertsitateko Teknikaria	1201.003

Hau esan behar du:

Lehenengoa. Arabako Foru Aldundiko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu bereziari (2022ko EPE) dagokion administrazio bereziko eskalan, azpieskala teknikoan, erdi mailako teknikariaren klasean, basogintzako ingeniari-tza teknikoan, A taldean, A2 azpitaldean sartzeko deialdiko karrerako funtzionario izendatzea honako lanpostu hauei atxikita gaintu duten hautagaiak:

IZENA	LANPUSTUA	KODEA
Miguel Corral Legazpia	Mendi Zerbitzuko Teknikaria	1200.001
Gorka Lago Parra	Biodibertsitateko Teknikaria	1201.003
Ekhi Mandiola Izaguirre	Mendi Zerbitzuko Teknikaria	1200.010
Xabier Albizu Zabala	Biodibertsitateko Teknikaria	1201.002

Bigarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze-ko errekurtsua hila-  
beteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1. artikuluan –urriaren 1eko 39/2015 Legearen, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. artiku-  
luarekin lotuta– xedatutakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 30a

*Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,  
Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*  
**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**